

Donostiak bat egiten du Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunarekin jarduera-programa zabal batekin

Ospakizuna Gipuzkoa Plazan izango da, non pertsonetikiko eta planetarekiko errespetuz egindako elikadura, arropa eta kosmetika produktuak erosi ahal izango diren

"Bidezko Merkataritzako produktu bat dago eguneko une bakoitzerako" goi buruean, Donostia Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunarekin bat egingo du maiatzaren 10ean, Donostiako Bidezko Merkataritzako taldeak (Adsis Fundazioa, Proclade-Yanapay, Oxfam Intermón, Proyde-Proega, Setem eta Alboan) eta Donostiako Udalak lankidetzan antolatu duten jarduera-programa batekin. Jardunaldi honen bidez, erakundeek salatu nahi dute eguneroko produktuen, hala nola arropa, kafea edo norberaren zaintzarako artikuluen atzean, maiz lan-baldintza prekarioak, prezio bidegabeak, haurren esplotazioa eta ingurumenaren degradazioa ezkutatzen direla. Horren aurrean, kontsumitzaileei gogorarazi nahi diete Bidezko Merkataritzako produktuek giza eskubideak eta lan-eskubide duinak bermatzen dituztela, eta ingurumenarekiko errespetuz ekoizten direla.

"Horrelako ekimenek, herritarrak sentsibilizatzeaz gain, alternatiba errealak eskaintzen dituzte kontsumo-eredu bidezkoago eta iraunkorrago baterantz aurrera egiteko. Bidezko Merkataritzaren alde egitea lan-eskubideak, ingurumena eta pertsonak erdigunean jarriko dituen ekonomia globala defendatzea da. Sustatzen ditugun balioekin koherenteagoa den hiria eraikitzeko modu zehatz eta eguneroko bat da ", adierazi du Iñigo Garcia Ingurumen, Inklusio eta Aniztasun zinegotziak.

Donostian, Gipuzkoa Plazan izango da ospakizuna, non Bidezko Merkataritzako produktuak erosi ahal izango diren, hala nola elikadura, arropa eta kosmetika, pertsonetikiko eta planetarekiko errespetuz egindakoak. Gainera, dastatze postu bat, txikienentzako txotxongilo tailer bat eta clown bat egongo dira, kontsumo arduratsuari eta larrialdi klimatikoari buruzko mezuak zabalduz goiza animatzeko.

Prentsa oharra

Nota de prensa

"Zentzumenen espazioa" ere bertan izango da: gure eguneroko hautuak ingurumenaren zaintzarekin lotzen duen zentzumen-bidaia nola bihur daitezkeen ezagutzeko txoko bat, Bidezko Merkataritzako lau produktu enblematikoren bidez.

Aurtengo berrikuntza gisa, Donostiako Bidezko Merkataritza Taldea Saretuz, Egoaizia eta Paz y Solidaridad erakundeekin elkarlanean arituko da, alternatiba jasangarriak ikusarazteko indarrak batuz. Gainera, errealitate birtualeko joko bat egongo da, produktu baten prozesua jatorritik gure mahairaino zeharkatzeko aukera emango duena, eta hiriko kontsumo arduratsuko eta bidezko merkataritzako dendan mapa bat aurkeztuko da, besteak beste, gogoeta egitera eta jardutera gonbidatzen duten proposamenen artean. Hori guztia, eguneko une bakoitzerako Bidezko Merkataritzako produktu bat dagoela eta gure eguneroko erabakiek mundua eralda dezaketela gogorarazten duen jardunaldi batean.

Hausnarketarako jardunaldia

"Herriar guztiak gonbidatzen ditugu gure kontsumo-erabakiek duten eraginari buruz hausnartzera. Modu etikoan egindako produktuak aukeratzen ditugun bakoitzean, krisi klimatikoa geldiarazten eta desberdintasun globalari aurre egiten laguntzen ari gara. Bidezko Merkataritza alternatiba erreal eta eraginkorra da, eta jardunaldi honetan, elkarrekin, ahotsa eta ikusgarritasuna emango zaio ", gaineratu du Garciak.

Krisi klimatikoak zerikusi zuzena du gure kontsumo-ohiturekin. Kafea, kakaoa edo kotoia bezalako eguneroko produktuak, ekoizpen-katean, baso-soiltzea, pestiziden erabilera intentsiboa eta CO2 emisioak inplikatzeko dituzte. Hego globaleko ekoizpen-erkidegoek klima-aldaketaren ondorioak pairatzen dituzten bitartean — lehortekak, uholdeak, uztar-galerak —, Iparraldeko enpresa handiek etekinak pilatzen jarraitzen dute, beren ereduaren ingurumen-inpaktuak onartu gabe.

Ehungintza-sektoreak, adibidez, karbono aztarna handia du: ur eta pestizida asko kontsumitzen ditu eta oso kutsakorra da. Hori guztia, gainera, baldintza prekarioetan lan egiten duten milioika emakumeen lanarekin egiten da. Arropa merkeak ekoizteko presak jasangarritasunaren kontra egiten du, eta horrek kalte zuzena eragiten dio planetari.

Kosmetikan, karitea edo palma-olioa bezalako osagaiak ingurumen-degradazioa biziartzen duten praktiken bidez lortzen dira askotan. Arautu gabeko erauzketak eta ekosistemen gaineko presioak biodibertsitatea mehatxatzen dute. Horren aurrean, Bidezko Merkataritzak labore ekologikoak,

Prentsa oharra

Nota de prensa



lurren errotazioa eta ingurunea eta lan egiten dutenak errespetatzen dituzten praktika jasangarriak sustatzen ditu.

Horren aurrean, Bidezko Merkataritzako produktuek alternatiba argia eskaintzen dute: tokiko ekosistemak babesten dituzte, nekazaritza jasangarria sustatzen dute, eta ingurumen-inpaktu txikia duten ekoizpen metodoei esker, klima-aldaketari aurre egiteko aliatu bihurtzen dira. Gure eguneroko aukerak, kolektiboan, eragin handia izan dezakete planeta bizigarriago bat eraikitzeko.

Ekitaldien agenda osoa www.comerciojustodonostia.org webgunean kontsulta daiteke.

Informazio gehio:

Laida Pino Gomez – 616 539 356 – proega@lasalle.es

Mikel Aguirre Herrero – 943 275 173 – mi.aguirre@alboan.org



proclade
yanapay



OXFAM



alboan



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Lankidetz
Cooperación